

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. LANDA HOTELAK ETA OSTATUAK. 2019KO ABENDUA

2019ko balantzea % 3,7ko igoerarekin itxi da, bai sarreretan, bai ostatu-gauetan

2019ko abenduan, Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerek % 2,5 egin dute gora

Euskal AEko hotel-establezimenduen 2019ko urteko balantzeak % 3,7ko igoera izan du, bai sarreretan, bai ostatu-gauetan, aurreko urtearekin alderatuta, Eustatek landutako datuen arabera. 2019an 3.184.904 sarrera zenbatu dira guztira, hau da, aurreko urtean baino 113.774 gehiago, eta 6.265.610 gaualdi, 2018an baino 225.087 gehiago.

2019ko abenduan, Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiarien sarrerak 208.813 izan dira, hau da, % 2,5 igo dira. Sarrerak % 4,0 igo dira Bizkaian eta % 1,8 Gipuzkoan, baina % 0,7 jaitsi dira Araban.

Bestalde, 2019ko abenduan Euskal AEko hotel-establezimenduetan izandako ostatu-gauak 384.037 izan dira; alegia, aurreko urteko abenduan izandakoen aldean, % 0,6ko igoera izan da, hau da, 2.456 ostatu-gau gehiago. Ostatu-gauak ere bilakaera positiboa izan dute urte batetik bestera Bizkaian (% 1,1eko igoera) eta Gipuzkoan (% 0,5ekoa), baina Araban jaitsi egin dira % 0,5.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiak, sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2019ko Abendua

	Gaualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-maila (%)				Gelatioko Errentagarritasuna			
							plazaka		gelaka		ADR (eurotan)		RevPar (eurotan)	
	2019/12	m/m-12 (%)	2019/12	m/m-12 (%)	2019/12	2018/12	2019/12	p.p.*	2019/12	p.p.*	12/2019	m/m-12 (%)	12/2019	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	384.037	0,6	208.813	2,5	1,84	1,87	44,1	-0,4	52,1	0,2	76,8	1,65	40,0	2,12
Estatukoak	272.814	-0,1	148.120	1,2	1,84	1,87	-	-	-	-	-	-	-	-
Atzeritarak	111.223	2,5	60.693	6,0	1,83	1,89	-	-	-	-	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	53.517	-0,5	28.848	-0,7	1,86	1,85	42,7	1,1	52,2	2,9	64,8	-0,05	33,8	5,72
Estatukoak	45.112	1,2	24.210	0,9	1,86	1,86	-	-	-	-	-	-	-	-
Atzeritarak	8.405	-8,7	4.638	-8,4	1,81	1,82	-	-	-	-	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	42.174	2,1	22.179	2,4	1,90	1,91	45,4	1,4	57,2	3,6	59,2	3,93	33,9	11,01
BIZKAIA	191.669	1,1	104.644	4,0	1,83	1,88	44,4	-2,2	53,0	-1,0	74,7	2,47	39,6	0,66
Estatukoak	137.209	-0,2	75.872	1,3	1,81	1,84	-	-	-	-	-	-	-	-
Atzeritarak	54.460	4,6	28.772	11,7	1,89	2,02	-	-	-	-	-	-	-	-
Bilbao	133.619	5,7	72.884	7,7	1,83	1,87	49,7	-2,2	58,4	-0,7	80,7	2,54	47,2	1,27
GIPUZKOA	138.851	0,5	75.321	1,8	1,84	1,87	44,3	1,4	50,9	0,6	84,7	1,58	43,1	2,86
Estatukoak	90.493	-0,5	48.038	1,1	1,88	1,91	-	-	-	-	-	-	-	-
Atzeritarak	48.358	2,3	27.283	3,1	1,77	1,79	-	-	-	-	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	88.275	2,3	48.836	3,3	1,81	1,83	50,1	2,6	55,6	2,6	101,1	-0,37	56,1	4,41

p.p.* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea
Iturria: Eustat. Establezimendu turistikoko hartzaileen inkesta


Estatuko sarreraren kopuruak % 1,2 egin du gora Euskal AEn, aurreko urteko abenduko datuekin alderatuta; atzerriko sarrerak, berriz, % 6,0 igo dira. Araban Estatuko bidaiarien kopuruak % 0,9 egin du gora, eta atzerrikoen kopuruak % 8,4 egin du behera. Bizkaian, Estatuko sarrerak % 1,3 igo dira, eta atzerrikoak, berriz, % 11,7. Gipuzkoan, Estatuko bidaiarien sarrerek % 1,1 egin dute gora, eta atzeritarrenak, berriz, % 3,1.

Batez besteko egonaldiaren iraupena 1,84 egunekoa izan zen abenduan, hau da, 2018ko abenduan izandako 1,87 eguneko batez besteko egonaldia baino zertxobait txikiagoa. Araban, iazko 1,85 egunetik aurtengo abenduan 1,86 egunera igo da; Bizkaian, 2018ko abenduan 1,88 egun izatetik aurtengo abenduan 1,83 egun izatera igaro da; eta Gipuzkoan ere murriztu egin da,

2018ko abenduan batez besteko 1,87 eguneko egonaldia izatetik joan den abenduan 1,84 egunekoa izatera igaro baita.

Plazen arabera okupazio-mailari dagokionez, ehuneko 0,4 puntu murriztu da Euskal AE osoan, 2018ko abenduan % 44,5 izatetik aurtengo abenduan % 44,1 izatera igaro baita. Araban, ehuneko 1,1 puntuko igoera izan da, 2018ko abenduan okupazioa % 41,6koa izatetik iragan abenduan % 42,7koa izatera igaro baita. Gipuzkoako okupazio-mailak ere gora egin du, ehuneko 1,4 puntu, 2018ko abenduan lortutako % 42,9tik azken abenduan lortutako % 44,3ra. Bizkaian, aldiz, ehuneko 2,2 puntuko beherakada izan da, 2018ko abenduan % 46,6 izatetik % 44,4ko okupazio-maila izatera igaro baita joan den abenduan.

Euskal AEko hotel establezimenduen okupazio-mailaren eboluzioa lurralde historikoaren arabera



Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Logelen okupazio-mailak ere aldaketa positiboa izan du, ehuneko 0,2 puntukoa Euskal AE osoan, gelen okupazio-maila % 52,1ekora iritsi baita. Araban portzentajezko 2,9 puntu egin du gora, % 52,2tan kokatuz; eta portzentajezko 0,6 puntu Gipuzkoan, logeletako okupazioa % 50,9ra iritsiz; Bizkaian puntu 1 jaitsi da, % 53ra iritsiz.

Abenduan, Donostian (% 50,1), Bilbon (% 49,7) eta Gasteizen (% 45,4) okupatu dira gehien hotelak plazen arabera.

Asteko eguna kontuan hartuta, asteburuetan gertatu da okupazio handiena Euskal AE osoan 2019ko abenduan: plaza okupatuena % 60,4. Astegunetako okupazioa % 38,3koa izan da.

Azkenik, **sektorearen errentagarritasun-adierazleei** dagokienez, Euskal AEko hotelen eguneko batez besteko tarifa (ADR) 76,8 eurokoa izan da 2019ko abenduan, urtebete lehenago baino % 1,65 handiagoa. Batez besteko tarifa 64,8 eurokoa izan da Araban, non aurreko urtearekin

alderatuta ia ez baita aldatu (% 0,05 gutxiago); 74,7 eurokoa Bizkaian (% 2,5 gehiago), eta 84,7 eurokoa Gipuzkoan (% 1,6 gehiago).

Gela libre bakoitzeko diru-sarrerak (RevPar), zeinak hotel-establezimenduen okupazio-mailaren arabera diren, 40,0 eurokoak izan dira 2019ko abenduan Euskal AEn, 2018ko abenduan baino % 2,1 gehiago. Araban RevPar 33,8 eurokoa izan zen, Bizkaian 39,6 eurokoa eta Gipuzkoan 43,1 eurokoa.

Hotel-establezimenduen 2019ko URTEKO BALANTZEA: 225 mila ostatu-gau gehiago

2019an 6.265.610 ostatu-gau zenbatu dira, hots, aurreko urtean baino 225.087 gehiago, hau da, % 3,7ko igoera. Ostatu-gauak % 6,3 igo dira Gipuzkoan eta % 2,8 Bizkaian, baina % 0,5 jaitsi dira Araban.

2019an 3.184.904 sarrera izan dira, hau da, aurreko urtean baino 113.774 gehiago, gaualdien igoera erlatibo berarekin (% 3,7). Sarrerak % 6,3 igo dira Gipuzkoan eta % 3,7 Bizkaian, baina % 3,4 murriztu dira Araban.

Egonaldiaren iraupena 1,97 egunekoa izan da 2019an Euskal AEn; plazen arabera okupazio-maila, berriz, ehuneko 0,6 puntu igo da, eta % 57,4 iritsi da Euskal AE osoan.

Azkenik, sektorearen errentagarritasun-adierazleei dagokienez, Euskal AEko hotelen eguneko batez besteko tarifa (ADR) 93,4 eurokoa izan da 2019an, urtebete lehenago baino % 3,2 handiagoa. Batez besteko tarifa 72,4 eurokoa izan da Araban (% 1,0ko igoera), 85,8 eurokoa Bizkaian (% 2,7koa) eta 109,7 eurokoa Gipuzkoan (% 3,7koa).

Gela libre bakoitzeko diru-sarrerak (RevPar) hotel-establezimenduen okupazio-mailaren arabera dira, eta 2019an 63,9 euro izan dira Euskal AEn, 2018an baino % 4,6 gehiago. Araban RevPar 46,1 eurokoa izan zen, Bizkaian 59,0 eurokoa eta Gipuzkoan 76,5 eurokoa.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiak, sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2019

	Gaualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze maila (%)				Gelatik errentagarritasuna			
							Plazakako		Logelako		ADR (eurotan)		RevPar (eurotan)	
	2019	2019/2018 (%)	2019	2019/2018 (%)	2019	2018	2019	p.p.*	2019	p.p.*	2019	2019/2018 (%)	2019	2019/2018 (%)
EUSKAL AE	6.265.610	3,7	3.184.904	3,7	1,97	1,97	57,4	0,6	68,4	0,9	93,4	3,24	63,9	4,60
ARABA/ÁLAVA	788.003	-0,5	416.219	-3,4	1,89	1,84	51,6	0,4	63,7	1,7	72,4	1,03	46,1	3,80
BIZKAIA	2.936.963	2,8	1.518.091	3,7	1,93	1,95	56,6	-0,4	68,7	-0,3	85,8	2,75	59,0	2,27
GIPUZKOA	2.540.644	6,3	1.250.594	6,3	2,03	2,03	60,4	1,7	69,8	2,0	109,7	3,71	76,5	6,78

p.p.* = aurreko urtearekiko ehuneko-puntu aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Landa-ostatuetan % 6,4 jaitsi dira sarrerak eta % 8,3 ostatu-gauak abenduan

Euskal AEko landa-ostatuetan 10.924 bidaiari sartu dira, aurreko urteko hilabete berean baino % 6,4 gutxiago. Lurraldeka, Araban % 5,7 igo dira sarrerak, Bizkaian % 13 jaitsi dira eta Gipuzkoan % 6,3.

Atzerritik etorritako bidaiariak 878 izan dira, eta hori urtebete lehenago jasotakoan aldean % 19,4ko jaitsiera da; sarrera guztien % 8 dira. Bestalde, Estatutik datozen sarrerak % 5,1 murriztu dira.

Euskal AEko agroturismo eta landetxeek 25.917 ostatu-gau izan dituzte 2019ko abenduan, eta % 8,3ko jaitsiera izan dute aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta. Lurraldeka, Araban % 2,6 jaitsi da, Bizkaian % 20,4 eta Gipuzkoan % 1,7.

Euskal AEko landetxeetako gualdiak, sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2019ko Abendua

	Gualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2019/12	m/m-12 (%)	2019/12	m/m-12 (%)	2019/12	2018/12	2019/12	p.p.*
EUSKAL AE	25.917	-8,3	10.924	-6,4	2,37	2,42	21,4	-2,0
Araba/Álava	5.127	-2,6	2.391	5,7	2,14	2,33	17,7	-0,6
Bizkaia	7.755	-20,4	3.715	-13,0	2,09	2,28	22,1	-4,8
Gipuzkoa	13.035	-1,7	4.818	-6,3	2,71	2,58	22,7	-0,8

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Plazen arabera okupazio-maila % 21,4koa izan da, eta ehuneko 2 puntu jaitsi da 2018ko abenduan lortutako kopuruekiko. Araban ehuneko 0,6 puntu jaitsi da, eta % 17,7tan geratu da. Bizkaian okupazio-maila % 22,1ekoa izan da, baina portzentajeazko 4,8 puntutan murriztu da 2018ko abenduarekin alderatuta, eta Gipuzkoan portzentajeazko 0,8 puntu jaitsi da, eta joan den abenduan % 22,7ko okupazio-maila lortu du.

Azkenik, bidaiari bakoitzeko batez besteko egonaldia laburtu egin da azken abenduan, duela urtebete 2,42 egunekoa izatetik azken hilabete horretan 2,37 egunekoa izatera igaro baita.

Landa-ostatuaren 2019ko urteko balantzea: % 3,1 murriztu dira sarrerak eta % 4,1 ostatu-gauak

2019an, 167.077 bidaiari sartu dira Euskal AEko agroturismo eta landetxeetan; hau da, urtebete lehenago baino % 3,1 gutxiago. Egindako gualdiak, berriz, 431.689 izan dira, 2018an baino % 4,1 gutxiago.

Sarrerak murriztu egin dira Bizkaian, % 2,8 gutxiago, eta Gipuzkoan, % 7,1 gutxiago, baina % 7,8 hazi dira Araban. Ostatu-gauak ere behera egin dute Bizkaian eta Gipuzkoan, % 4,2 eta % 7,4, hurrenez hurren, eta % 7,7 igo dira Araban.

2019ko bidaiari bakoitzeko batez besteko egonaldia 2018ko 2,61 egunetik azken urteko 2,58 egunera jaitsi da. Plazen arabera okupazio-maila ia ehuneko puntu bat jaitsi da (-0,9 puntu), eta plazen arabera okupazio-maila % 28,6koa izan da 2019an.

Euskal AEko landetxeetako gaualdiak, sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2019

	Gaualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze maila (%)			
							Plazakako		Logelako	
	2019	2019/2018 (%)	2019	2019/2018 (%)	2019	2018	2019	p.p.*	2019	p.p.*
EUSKAL AE	431.689	-4,1	167.077	-3,1	2,58	2,61	28,6	-0,9	32,1	-0,3
ARABA/ÁLAVA	73.832	7,7	32.659	7,8	2,26	2,26	20,9	0,5	23,02	0,5
BIZKAIA	133.123	-4,2	51.873	-2,8	2,57	2,60	29,5	-0,2	33,22	0,5
GIPUZKOA	224.734	-7,4	82.545	-7,1	2,72	2,73	31,9	-1,8	36,04	-1,0

p.p.* = aurreko urtearekiko ehuneko-puntu aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62